

# INDARKERIAREN AURKAKO PREBENTZIO, DEKTEKZIO ETA JARDUKETAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROEN KATALOGOA

Save the Children

# AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| Sarrera. | 3 |
| Gure metodologia. | 4 |
| Profesionalei zuzendutako prestakuntza orokorra: HNIBBILO. | 5 |
| Gizarte-zerbitzuen arloko prestakuntza espezifikoa: HNIBBILO. | 6 |
| Hezkuntzaren arloko prestakuntza espezifikoa: HNIBBILO. | 7 |
| Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako prestakuntza espezifikoa: HHNIBBILO. | 8 |
| Eskola-jazarpenari eta ziberjazarpenari buruzko prestakuntza espezifikoa. | 9 |
| Haur eta nerabeen kontrako sexu-biktimizazioari eta Barnahus ereduari buruzko prestakuntza. | 10 |
| Haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriari buruzko prestakuntza: tratu onetan oinarritutako ingurune seguruak eta babesleak sortzea. | 11 |
| Tratu onean oinarritutako ingurune seguru eta babesleei buruzko prestakuntza. | 12 |
| Haur eta nerabeen aurkako indarkeria hautemateko eta jakinarazteko prestakuntza. | 13 |
| Biktimizazio sekundarioa murrizteko prestakuntza praktikoa: nola hartu ezagutarazitakoa. | 14 |
| Haur eta nerabeen sexu-abusuari buruzko prestakuntza. | 15 |
| Haur eta nerabeen arretako gaitasun emozionalei buruzko prestakuntza praktikoa, tratu onak sustatzeko (role-playing dinamika). | 16 |
| Haur eta nerabeen arloan generoan oinarrituta dauden indarkerien sarrerarako prestakuntza. | 17 |
| SOGIESC eskubideak, batez ere mugimenduan diren haur, nerabe eta gazteen ikuspegitik. | 18 |
| Sexu-esplotaziorako edo beste xede batzuetarako pertsonen salerosketari buruzko prestakuntza. | 19 |
| Profesionalentzako beste prestakuntza batzuk. | 19 |

# > SARRERA

Haurtzaroko gure bizipenek, jasotako tratuak, garatu garen baldintzek nahiz hezkuntzak zehazten dute gure izaera, bai eta pertsona gisa dugun garapena ere. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaz ez dakigu gauza handirik. Zaila da detektatzea eta, beraz, zaila da erantzuna ematea ere. Baina pertsona bati bere lehen urteetan indarkeria jasanarazten zaionean, betirako marka utz diezaioke.

Indarkeriari aurrea hartzeko, indarkeria hautemateko eta halakoen aurrean egoki jarduteko, behar-beharrezkoa da haur eta nerabeak babestuko dituzten inguruneak garatzea, hala haur eta nerabe horiek tratu onean oinarritutako baldintzetan eta indarkeriarik gabe garatu eta bizi daitezen, haur eta nerabe horiek dabiltzan tokia dena delakoa izanda ere (haurren babes-zentroak, eskolak, kiroletako eta aisialdiko guneak eta, oro har, gizarteko bestelako guneak).

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Legeak (HNIBBILO), 2021eko ekainean onartu zenak, aldaketa ugari ekarri ditu, eta, horrekin batera, indarkeriaren aurrean haur eta nerabeak hobeto babestu ahal izateko aurrerapenak egin dira. Gainera, paradigma-aldaketa handi bat ere egin ahal izan da, indarkeria mota ororen aurrean eta fase guztietan modu integral batean jarduteko bidea ireki baitu, ikuspegi prebentibo eta pedagogiko argia hartuta. Aldaketa sakon eta iraunkor bat sortzeko beharrezkoak diren jarduketen barnean, behar hau ere azpimarratzen du legeak: beren lanbidean adingabeekin harremanetan egon ohi diren profesionalek indarkeriaren aurkako prebentzioaren eta jarduketaren esparruan etengabeko prestakuntza espezializatua jasotzeko duten beharra, hain zuzen.

Prestakuntza-saio eta ikastaroen katalogo hau proposatuz, profesionalek haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren kontzeptuarekin lotuta oinarrizko ezagutzak barneratu ditzaten lortu nahi dugu, ahalik eta azkarren hauteman ditzaten horrelakoak, eta hizkuntza bateratu bat erabil dezaten, bai eta zenbait ezaguera metodologiko ikas ditzaten ere. Izan ere, ezaguera metodologiko horiek indarkeriaren aurkako prebentzio, detekzio eta jarduketarako prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek modu koordinatuan lan egitea ahalbidetuko dute.

*** PRESTAKUNTZA-PROPOSAMENAK ERAKUNDE EDO ELKARTE BAKOITZAREN BEHAR ESPEZIFIKOETARA MOLDA DAITEZKE, BAI ETA AURREKONTUA ERE.**



# > GURE METODOLOGIA

## PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

Gure formazioen diseinua ADDIE ereduan oinarritzen da: Instrukzio Diseinuko (ID) prozesua, ikaslean arreta jartzen duen ikuspegiagatik bereizten dena (ikastaroaren diseinua ikasleen behar eta ezaugarrietan oinarritzen dela ziurtatzen du), malgutasunagatik eta ikuspegi sistematiko baten jarraipenagatik.

4 fase dauzka:

1. **Beharren azterketa** (mapaketen bidez, literaturaren berrikuspenaren bidez eta arau-esparruen azterketen bidez), audientzia (ezagutza-mailak eta itxaropenak) eta helburuen definizioa.

2. **Diseinua:** edukien mapaketa, ebaluazioen diseinua eta irakaskuntza-estrategien hautakea.

3. **Garapena:** edukien sorrera (adituekin eta espezialistekin lankidetzan aritzea), tresna praktikoen garapena eta ebaluazio-metodoak ekoizpena.

4. **Inplementazioa:** online ikastaroen bidez, webinars eta/edo orientazio praktikora bideratuta dauden ikastaro presentzialean bidez.

Bestalde, formazioak modalitate asinkronikoan eta/edo hibridoan eskaintzeko garatu dira (urrunetik eta aurrez aurre edo webinarsen bidez zuzenean konektatu ahal izateko), ikasgelan presentzialki eta urrutitik dauden ikasleen kalitatezko esperientzia bermatuz.

Ikasleek indarkeriaren prebentzioari, detekzioari eta honi aurre egiteari buruzko prestakuntza teorikoa jasoko dute, kasu praktikoekin batera. Gainera, material didaktikoa eskuragarri edukiko dute.

## EBALUAZIOA

Modulu bakoitza amaitzean, ikasleak test bat egingo du, ikastaroko edukiak barneratu dituen ebaluatzeko. Ikastaroa amatzen duenean, prestakuntza-saioen ebaluaziorako galde-sorta bati erantzungo dio ikasleak, horien egokitasuna aztertzeko bidea izan dezagun horrela, eta, beharrezkoa bada, aldaketak egin ditzagun.

## > PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA OROKORRA: HNIBBILO

| | |
|---|---|
| **NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:** | beren ohiko jardunean haur eta nerabeekin harremanetan dauden profesionalei, indarkeriaren aurkako prebentzioarekin, detekzioarekin eta jarduketarekin lotuta. Guztia, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren 8/2021 Lege Organikoaren (HNIBBILO) esparruan. |
| **IRAUPENA:** | 6 **ordu** |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK:** | haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Legearen oinarrizko zenbait alderdi eta lege horrek ekarri dituen aldaketa nagusiak ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko. |
| **EDUKIAK:** | **1. GAIA.** HNIBBILOri buruzko sarrera orokorra: HNIBBILOren sarrera, ibilbidea eta garrantzia. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko datuak: egoera zertan den. HNIBBILO ulertzeko oinarrizko terminoen glosarioa.<br><br>**2. GAIA.** HNIBBILOren sakoneko azterketa. Zer da ingurune seguru bat? Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Lege Organikoaren (HNIBBILO) berrikuntzak eta hobekuntzak – Valentziako Erkidegoko Psikologiako Elkargo Ofiziala. HNIBBILOk ekarritako berrikuntza nagusiak. HNIBBILO esparruz esparru. Babes-figurak: ongizate-koordinatzailea eta babes-ordezkaria. Justiziaren espezializazioa. Material osagarria – gaian sakontzeko irakurgaiak.<br><br>**3. GAIA.** Profesionalentzako tresnak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleen sakoneko azterketa. Ikuspegi zabalagorako materiala: baliabideak.<br><br>**4. GAIA.** Laguntza-materiala. Eskola-jazarpena eta ziberjazarpena HNIBBILOn. HNIBBILO: legedian izan diren aldaketa nagusiak. |

## > GIZARTE-ZERBITZUEN ARLOKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA: HNIBBILO

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

gizarte-zerbitzuen arloko profesionalei, indarkeriaren aurkako prebentzio, detekzio eta jarduketarekin lotutako alderdietan, gizarte-zerbitzuen berezko bereizgarrietan sakonduz. Guztia, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren 8/2021 Lege Organikoaren (HNIBBILO) esparruan.

**IRAUPENA:**

8 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Legean gizarte-zerbitzuen arloarekin lotuta dauden zenbait alderdi eta lege horrek ekarri dituen aldaketak ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko.

**EDUKIAK:**

**1. GAIA.** HNIBBILOri buruzko sarrera orokorra: HNIBBILOren sarrera, ibilbidea eta garrantzia. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko datuak: egoera zertan den. HNIBBILO ulertzeko oinarrizko terminoen glosarioa.

**2. GAIA.** HNIBBILOren sakoneko azterketa. Zer da ingurune seguru bat? Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Lege Organikoaren (HNIBBILO) berrikuntzak eta hobekuntzak – Valentziako Erkidegoko Psikologiako Elkargo Ofiziala. HNIBBILOk ekarritako berrikuntza nagusiak. HNIBBILO esparruz esparru.

Babes-figurak: ongizate-koordinatzailea eta babes-ordezkaria. Justiziaren espezializazioa. Material osagarria – gaian sakontzeko irakurgaiak.

**3. GAIA.** Profesionalentzako tresnak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleen sakoneko azterketa. Ikuspegi zabalagoa jorratzeko materiala: baliabideak.

**4. GAIA.** HNIBBILOren azterketa, bereziki gizarte-zerbitzuen arloari erreparatuta.

**5. GAIA.** Laguntza-materiala. Eskola-jazarpena eta ziberjazarpena HNIBBILOn. HNIBBILO: legedian izan diren aldaketa nagusiak.

## > HEZKUNTZAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA: HNIBBILO

| | |
|---|---|
| NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA: | hezkuntzaren arloko profesionalei, indarkeriaren aurkako prebentzio, detekzio eta jarduketarekin lotutako alderdietan, hezkuntzaren berezko bereizgarrietan sakonduz. Guztia, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren 8/2021 Lege Organikoaren (HNIBBILO) esparruan. |
| IRAUPENA: | 8 ordu |
| HELBURU ESPEZIFIKOAK: | haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Legean hezkuntzaren arloarekin lotuta dauden zenbait alderdi eta lege horrek ekarri dituen aldaketak ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko. |
| EDUKIAK: | **1. GAIA.** HNIBBILOri buruzko sarrera orokorra: HNIBBILOren sarrera, ibilbidea eta garrantzia. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko datuak: egoera zertan den. HNIBBILO ulertzeko oinarrizko terminoen glosarioa.<br><br>**2. GAIA.** HNIBBILOren sakoneko azterketa. Zer da ingurune seguru bat? Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Lege Organikoaren (HNIBBILO) berrikuntzak eta hobekuntzak – Valentziako Erkidegoko Psikologiako Elkargo Ofiziala. HNIBBILOk ekarritako berrikuntza nagusiak. HNIBBILO esparruz esparru. Babes-figurak: ongizate-koordinatzailea eta babes-ordezkaria. Justiziaren espezializazioa. Material osagarria – gaian sakontzeko irakurgaiak.<br><br>**3. GAIA.** Profesionalentzako tresnak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleen sakoneko azterketa. Ikuspegi zabalagoa jorratzeko materiala: baliabideak.<br><br>**4. GAIA.** HNIBBILOren azterketa, bereziki hezkuntzaren arloari erreparatuta.<br><br>**5. GAIA.** Laguntza-materiala. Eskola-jazarpena eta ziberjazarpena HNIBBILOn. HNIBBILO: legedian izan diren aldaketa nagusiak. |

## > ESTATUKO SEGURTASUN INDAR ETA KIDEGOETARAKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA: HHNIBBILO

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen arloko profesionalei, indarkeriaren aurkako prebentzio, detekzio eta jardueketarekin lotutako alderdietan, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen berezko bereizgarrietan sakonduz. Guztia, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren 8/2021 Lege Organikoaren (HNIBBILO) esparruan.

**IRAUPENA:**

8 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Legean Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen arloarekin lotuta dauden zenbait alderdi eta lege horrek ekarri dituen aldaketak ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko.

**EDUKIAK:**

**1. GAIA.** HNIBBILOri buruzko sarrera orokorra: HNIBBILOren sarrera, ibilbidea eta garrantzia. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko datuak: egoera zertan den. HNIBBILO ulertzeko oinarrizko terminoen glosarioa.

**2. GAIA.** HNIBBILOren sakoneko azterketa. Zer da ingurune seguru bat? Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Lege Organikoaren (HNIBBILO) berrikuntzak eta hobekuntzak – Valentziako Erkidegoko Psikologiako Elkargo Ofiziala. HNIBBILOk ekarritako berrikuntza nagusiak. HNIBBILO esparruz esparru. Babes-figurak: ongizate-koordinatzailea eta babes-ordezkaria. Justiziaren espezializazioa. Material osagarria – gaian sakontzeko irakurgaiak.

**3. GAIA.** Profesionalentzako tresnak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleak. Profesionalentzako tresnak: indarkeriaren adierazleen sakoneko azterketa. Ikuspegi zabalagoa jorratzeko materiala: baliabideak.

**4. GAIA.** HNIBBILOren azterketa, bereziki Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen arloari erreparatuta.

**5. GAIA.** Laguntza-materiala. Eskola-jazarpena eta ziberjazarpena HNIBBILOn. HNIBBILO: legedian izan diren aldaketa nagusiak.

## > ESKOLA-JAZARPENARI ETA ZIBERJAZARPENARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

hezkuntzaren arloko profesionalei, eskola-jazarpenaren eta ziberjazarpenaren aurkako prebentzioarekin, detekzioarekin eta jarduketarekin lotutako alderdietan. Guztia, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren 8/2021 Lege Organikoaren (HNIBBILO) esparruan.

**IRAUPENA:**

6 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

haurrak eta nerabeak babestearekin lotutako zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko.

**EDUKIAK:**

› Haurren aurkako indarkeria Espainian.

› Indarkeria, HNIBBILOren arabera.

› Onlineko zer indarkeria mota bereizten dira?

› Zer dira eskola-jazarpena eta ziberjazarpena?

› Generoaren araberako bereizketa eskola-jazarpenean eta ziberjazarpenean.

› Zer da jazarpena?

› Zer da ziberjazarpena?

› Generoarekin lotutako joerak jazarpenean eta ziberjazarpenean.

› Rolak.

› Zein dira detekziorako adierazle emozionalak?

› Zein dira detekziorako jokabide-adierazleak?

› Tresna praktikoak.

## > HAUR ETA NERABEEN KONTRAKO SEXU-BIKTIMIZAZIOARI ETA BARNAHUS EREDUARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

beren jardunean haur eta nerabeekin harremanetan egon ohi diren profesionalei, haur eta nerabeen kontrako sexu-biktimizazioa detektatzeari buruz ebidentzian oinarritutako ezagutza eguneratuak sustatzeko eta Barnahus ereduaren barnean kasuen kudeaketan egoki jarduteko bideak indartzeko xedez.

**IRAUPENA:**

30 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

› Haur eta nerabeen kontrako biktimizazioaren kontzeptualizazioari eta detekzioari buruz ebidentzian oinarritutako ezagutza eguneratua ematea.
› Kasuen kudeaketan jardunbide egokiak sustatzea, Barnahus ereduaren barnean.
› Haur eta nerabeen kontrako sexu-indarkeria kasuetan esku hartzen duten zerbitzuen jarduketari buruzko gogoetarako guneak sortzen laguntzea.

**EDUKIAK:**

› Haur eta nerabeen aurkako sexu-biktimizazioari buruzko sarrera eta genero-joerak Espainian.
› Haur eta nerabeen kontrako sexu-indarkeriaren adierazleak eta sintomatologia, generoaren ikuspegitik.
› Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren ondorioak.
› Haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurrean haur eta nerabeak babesteko arauen esparrua.
› Espainian haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriaren aurreko arretan eta prebentzioan izan diren jardunbide egokiak eta esperientzia arrakastatsuak.
› Biktimologiaren oinarriak.
› Garapenaren biktimologiaren esparru teorikoa.
› Haur eta nerabeen aurkako sexu-biktimizazioaren ondorioak.
› Sistema, biktimagile.
› Biktimizazio sekundarioa saihesteko proposamenak.
› Haur eta nerabeen kontrako indarkeria kasuetan Kataluniako indarreko ibilbide eta prozesu judizialean izan diren esperientzia arrakastatsuak.
› Barnahus ereduaren ezaugarriak haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeari begira.
› Barnahus ereduaren kalitate-estandarrak eta jardunbide egokiak.

## › HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIARI BURUZKO PRESTAKUNTZA: TRATU ONETAN OINARRITUTAKO INGURUNE SEGURUAK ETA BABESLEAK SORTZEA

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

beren ohiko jardunean haur eta nerabeekin harremanetan dauden profesionalei, haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriarekin eta tratu onetan oinarritutako ingurune seguru eta babesleak sortzearekin lotutako alderdietan.

**IRAUPENA:**

6 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

haur eta nerabeen aurkako indarkeriarekin lotutako zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko.

**EDUKIAK:**

› Sarrera orokorra: haur eta nerabeen aurkako indarkeria, batez ere sexu-indarkeriari erreparatuz eta generoaren ikuspegitik.

› Ingurune seguruen definizioa, eta tratu onean oinarritutako ingurune seguru eta babesleen Save the Childrenen eredua.

› Sexu-indarkeriaren prebentzioa, generoaren ikuspegitik.

› Indarkeria-kasuak hautematea: adierazleak eta ezagutarazitakoa nola hartu.

› Nola jokatu indarkeria-kasuen aurrean: esku hartzeko printzipioak eta protokoloak.

## > FTRATU ONEAN OINARRITUTAKO INGURUNE SEGURU ETA BABESLEEI BURUZKO PRESTAKUNTZA

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

beren ohiko jardunean haur eta nerabeekin harremanetan dauden profesionalei, tratu onetan oinarritutako ingurune seguru eta babesleekin lotutako alderdietan.

**IRAUPENA:**

6 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

tratu onean oinarritutako ingurune seguru eta babesleekin lotutako zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko.s y adolescentes y la generación de entornos seguros.

**EDUKIAK:**

› Haur eta nerabeen aurkako indarkeriari buruzko sarrera: indarkeria motak.

› Ingurune seguruen definizioa eta ezaugarriak. Tratu onean oinarritutako ingurune seguru eta babesleen Save the Childrenen eredua.

› Prebentziorako eta haur eta nerabeei tratu ona emateko estrategiak: prebentziorako tresnak eta gurasotasun positiboa, genero-ikuspegia ingurune seguruetan.

› Prebentzioan haur eta nerabeek betetzen duten zeregina: haur eta nerabeen eskubideak babesteko horien parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzeak duen indarra azpimarratzea.

› Haur eta nerabeak babestea: tratu ona ardatz duen antolaketa-kultura bat izateak duen garrantzia, euskarritzat hartuta bai jokabide-kodeak, bai erakundean esku hartzen duten pertsona guztiek ezagutzen dituzten jakinarazpen-bideak eta bai arriskuen analisia.

## > HAUR ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA HAUTEMATEKO ETA JAKINARAZTEKO PRESTAKUNTZA

**NORI ZUZENT-ZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

beren jardunean haur eta nerabeekin harremana izan ohi duten profesionalei, haur eta nerabeen aurkako indarkeria hauteman eta jakinaraztearekin lotutako alderdietan.

**IRAUPENA:**

6 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

haur eta nerabeen aurkako indarkeria hautematearekin eta jakinaraztearekin lotutako zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko.

**EDUKIAK:**

› Nola hauteman susmopeko kasuak. Generoarekin zerikusia duten adierazle espezifikoak eta ez-espezifikoak.

› Zer egin daiteke haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren adierazle ez-espezifikoekin?

› Nola jokatu behar dugu haurren kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren susmoak ditugunean?

› Ezagutaraztea, adierazle nagusi gisa. Ezagutaraztean eragiten duten faktoreak.

› Ezagutaraztea prozesu gisa. Atzera-egitea.

› Ezagutarazitako egoera baten aurrean nola jokatu jakiteko jarraibideak.

› Jakinarazpena

› Prebentzioa, detekzio goiztiarrerako bide. Haur eta nerabeentzako erabilgarriak diren baliabideak eta tresnak. Generoan oinarritutako indarkeriaren prebentzioa.

## > BIKTIMIZAZIO SEKUNDARIOA MURRIZTEKO PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA: NOLA HARTU EZAGUTARAZITAKOA

| | |
|---|---|
| NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA: | beren jardunean nerabeekin harremanetan egon ohi diren profesionalei, biktimizazio sekundarioa murriztearekin lotutako alderdietan eta ezagutarazitakoarekin lotuta. |
| IRAUPENA: | 2 ordu |
| HELBURU ESPEZIFIKOAK: | biktimizazio sekundarioa murriztearekin eta ezagutarazitakoa hartzeko bidearekin lotutako zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko. |
| EDUKIAK: | › Abusu edota tratu txarren kasu bat ezagutarazten denean.<br>› Ezagutaraztea: definizioa eta motak.<br>› Ezagutaraztean eragiten duten aldagaiak.<br>› Ezagutarazitakoaren aurrean nola jokatu jakiteko jarraibideak: zer galdetu, eta nola? Zer EZ galdetu? Zer egin eta zer EZ egin? |

## › HAUR ETA NERABEEN SEXU-ABUSUARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

| | |
|---|---|
| **NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:** | beren jardunean haur eta nerabeekin harremanetan egon ohi diren profesionalei, haur eta nerabeen abusuarekin lotutako alderdietan.l. |
| **IRAUPENA:** | 6 ordu |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK:** | haur eta nerabeen sexu-abusuarekin lotutako zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko. |
| **EDUKIAK:** | › Profesionalaren ziurgabetasuna haur edo nerabe baten sexu-abusuaren aurrean. Zer egin eta nola jokatu?<br>› Haur eta nerabeen sexu-abusua, generoan oinarritutako indarkeria posible gisa.<br>› Haur eta nerabeen sexu-abusuaren definizioa.<br>› Arrisku-faktore eta detekziorako adierazle espezifikoak eta ez-espezifikoak. Genero-ikuspegia.<br>› Biktima diren adingabeen arretarako zenbait gako. Haur eta nerabeak berriro biktima ez bihurtzeko estrategiak.<br>› Nola landu daiteke haur eta nerabeen sexu-abusua haur eta nerabeekin? Prebentziorako gakoak. |

## › HAUR ETA NERABEEN ARRETAKO GAITASUN EMOZIONALEI BURUZKO PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA, TRATU ONAK SUSTATZEKO (ROLE-PLAYING DINAMIKA)

| | |
|---|---|
| **NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:** | beren jardunean haur eta nerabeekin harremana izan ohi duten profesionalei, tratu onak sustatzeko haur eta nerabeen arretan beharrezkoak diren gaitasun emozionalekin lotuta. |
| **IRAUPENA:** | 6 ordu |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK:** | tratu onak sustatzeko haur eta nerabeen arretan beharrezkoak diren gaitasun emozionalekin lotuta zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko. |
| **EDUKIAK:** | › Gaitasun emozionalen definizioa.<br>› Adingabeen arretan gaitasun emozionalak garatzeak dakartzan onurak.<br>› Atxikimenduaren teoria, lotura motak.<br>› Norberaren ezagutza emozionala: gure historia berrikustea.<br>› Norberaren emozioak ezagutzea eta kudeatzea.<br>› Eragile emozionalak identifikatzea: norberaren kontrola eta emozioen erregulazioa.<br>› Adingabeen arretan enpatiak duen garrantzia: enpatia eta harreman emozionala. |

## › HAUR ETA NERABEEN ARLOAN GENEROAN OINARRITUTA DAUDEN INDARKERIEN SARRERARAKO PRESTAKUNTZA

| | |
|---|---|
| NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA: | haur eta nerabeekin jardun ohi duten profesionalei, haur eta nerabeen arloan generoan oinarrituta dauden indarkeriekin lotutako alderdietan. |
| IRAUPENA: | 5 ordu |
| HELBURU ESPEZIFIKOAK: | haur eta nerabeen arloan generoaren oinarrituta dauden indarkeriekin lotutako zenbait alderdi ezagutaraztea, eta profesionalei baliabideak ematea, haur eta nerabeei tratu ona ematen zaiela ziurtatzeko eta ingurune segurak sortzeko. |
| EDUKIAK: | › Generoa desmuntatuz.<br>› Genero-indarkeriari buruzko oinarrizko kontzeptuak. Mitoak eta errealitateak. Indarkeria motak.<br>› Haur, nerabe eta gazteengan genero-indarkeriak betikotzen dituzten genero-estereotipoak.<br>› Prebentziorako estrategiak (hezkuntzakoak eta sentsibilizaziokoak). Erantzukizun partekatuan eta indarkeriarik ezean oinarritutako maskulinitateak. |

## › SOGIESC ESKUBIDEAK, BATEZ ERE MUGIMENDUAN DIREN HAUR, NERABE ETA GAZTEEN IKUSPEGITIK

| | |
|---|---|
| NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA: | haur eta nerabeekin jardun ohi duten profesionalei, haur eta nerabeen arloan generoan oinarrituta dauden indarkeriekin lotutako alderdietan. |
| IRAUPENA: | 5 ordu |
| HELBURU ESPEZIFIKOAK: | Mugimenduan diren SOGIESC haur, nerabe eta gazteen beharrak hautemateko, arreta eskaintzeko eta kasuak beste arlo batzuetara bideratzeko gaitasunak indartzea, babesten direla ziurtatu ahal izateko. |
| EDUKIAK: | › Zenbait kontzeptu eta termino, teoria feministaren, intersekzionalaren eta dekolonialaren ikuspegitik.<br>› Giza eskubideen, haurren eskubideen eta lgbiq+ eskubideen arteko erlazioa.<br>› Mugimenduan diren SOGIESC haur, nerabe eta gazteen aurkako indarkeriak, eta horien ondorioak. Herrialdeen azterketa: Maroko, Aljeria, Senegal, Gambia eta Mali.<br>› Mugimenduan diren SOGIESC haur, nerabe eta gazteentzako espazio seguruak.<br>› Mugimenduan diren SOGIESC haur, nerabe eta gazteekin esku hartzeko jarraibideak: horien beharrak hautematea eta ebaluatzea. |

### › SEXU-ESPLOTAZIORAKO EDO BESTE XEDE BATZUETARAKO PERTSONEN SALEROSKETARI BURUZKO PRESTAKUNTZAL

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN, ETA HELBURU NAGUSIA:**

haur eta nerabeekin jardun ohi duten profesionalei, haur eta nerabeen arloan generoan oinarrituta dauden indarkeriekin lotutako alderdietan.

**IRAUPENA:**

5 ordu

**HELBURU ESPEZIFIKOAK:**

profesionalei beharrezkoak diren elementu teorikoak eskaintzea pertsonen salerosketaren inguruan, eta pertsonen salerosketaren arloko (sexu-esplotazioarekin lotuta edo ez) zenbait kasutan izandako jarduera praktikoa aurkeztea taldeei, eta arlo horretan lan egitea talde horiekin.

**EDUKIAK:**

› Hurbilketa kontzeptuala.

› Salerosketa-kasuen neurketa.

› Arau-esparrua.

› Pertsonen salerosketaren esparruko jarduketa.

› Jarduketa-protokoloa haur, nerabe eta gazteen salerosketa egoeretan.

› Kasu-azterketak.

## › PROFESIONALENTZAKO BESTE PRESTAKUNTZA BATZUK

› Lehen laguntza psikologikoa: estres emozionaleko egoerei eusteko eta lehen arreta eman ahal izateko tresnak.

› Sexu-esplotaziorako giza salerosketaren eta esplotazioaren detekzio goiztiarra.

› SOGIESC arloarekin lotuta haur eta nerabeek izan ditzaketen zaurgarritasunen detekzio goiztiarra.

**Save the Children**



IKASTARO GEHIENAK GAZTELANIAZ DIRA.
BESTE HIZKUNTZA BATZUETARA ITZULTZEKO
DAUDEN AUKERAK BALIOESTEKO,
IDATZ IEZAGUZU HONA:
formacionesinfancia@savethechildren.org

*INFORMAZIO GEHIAGO NAHI BADUZU, JARRI
HARREMANETAN PRESTAKUNTZA-TALDEAREKIN,
HONAKO HELBIDE ELEKTRONIKO HONEN BIDEZ:
formacionesinfancia@savethechildren.org